

Gradu Amaierako Lana

GRAL

**ARAUTEGIA, UPV/EHUren
PSIKOLOGIAKO GRADU AMAIERAKO
LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI
BURUZKOA.**

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Batzordea
3. Gaitasunak
 - a. Balioetsi beharreko zeharkako gaitasunak
4. Hautaketa eta matrikula
 - a. Prozesua
5. Modalitateak eta gaien eskaintza
6. Tutoretza
 - a. Tutoreen eginkizunak
 - b. Prozesua
7. Lana egiteko jarraibide orokorrak
8. Aurkezpena eta defentsa
 - a. Deialdiak eta defentsarako epeak
 - b. Aurkezpen formatua eta defentsa
9. Balioespena, kalifikazioa eta berrikusketa
 - a. Epaimahaia eta eginkizunak
 - b. Ebaluazioa eta berrikusketa
10. GRAL onenarentzako saria

ARAUTEGIA, UPV/EHUren PSIKOLOGIAKO GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKOA.

1.- SARRERA

Urriaren 29ko 1393/2007 errege dekretuak, III. kapituluan, graduko ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horiek amaitzeko gradu amaierako lan bat egin beharko dela eta lan hori "tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta" egongo dela.

2013ko abenduaren 14an UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari buruzko Arautegia onartu zuen, eta 2024ko apirilaren 10eko EHAAn argitaratu. Arautegi horretan, ikastegiei garatu beharko dituzten eta fakultateko edo eskolako batzarrek onartu beharko dituzten jarraibide orokorrak ezarri ziren.

UPV/EHUko Psikologiako Graduko Titulua Egiatzatzeko Memorian adierazita dagoen bezala, "Gradu Amaierako Lana" ikasleak nahitaez egin beharreko jardura da, 6 kredituren zama izanik, ikasturtearen bigarren lauhilekoan egin behar dena. Gradu amaierako lana (aurrerantzean GRAL) egiteko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira. Lanaren helburua da ikasleak erakuts ditzala ikasketa prozesuan zehar lortutako gaitasunak. Dokumentu idatzia izango da, baina ahoz azaldu beharko du aurrez aurre eta jendaurreko ekitaldi batean, xede horretarako izendatutako epaimahaiaren aurrean eta beronek balioetsiko du.

GRALak 6 ECTS kredituren balioa du; hau da, 150 ordu, era honetan banatuta: 30 ordu presentzialak eta 120 ez presentzialak.

2.- BATZORDEA

Batzordea honako hauek osatzen dute:

- Ikaslegoaren dekanordeak
- Gradu koordinatzaileak
- Ikastegiko teknikaria
- Ikastegiko bulego burua
- IRIren ordezkari bat, ikastegiko sail bakoitzeko
- eta ikasleen ordezkari bat.

Honako hauek izango dira batzordearen eginkizunak:

- o Ikasturte bakoitzean egindako GRALren kudeaketa aztertzea.
- o Inplikaturako kolektiboen gogobetetzea ebaluatzea.
- o GRALerako prozesuari hobekuntzak proposatzea.
- o Prozesuaren funtzionamendua eta ikuskapena bermatzen laguntzea.

3.- GAITASUNAK

- Psikologiaren eredu teorikoak ezagutzea aukeratutako gaien, eta hauen ekarpenak eta mugak kritikoki balioesteko gai izatea.
- Gai izatea gizakiaren substratu psikologikoa eratzen duten elementuak identifikatzeko eta integratzeko.
- Gai izatea ebaluaziorako datu garrantzitsuak neurtzeko eta lortzeko, datu kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak aztertzeko, emaitzak interpretatzeko eta landutako gaiari buruzko txosten teknikoak behar bezala egiteko, ahoz eta/edo idatziz aurkezteko.
- Gai izatea aztergai den testuinguruan agertzen diren desberdintasunak, arazoak eta premia indibidualak, taldekoak eta talde artekoak identifikatzeko.
- Gai izatea landutako gaiarekin lotutako informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertzeko eta laburtzeko, informazio eta dokumentazio iturri espezializatuetatik abiatuta.

Balioetsi beharreko zeharkako gaitasunak

- Gai izatea psikologiarekin lotutako informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertzeko eta laburtzeko, informazio eta dokumentazio iturri espezializatuetatik abiatuta.
- Modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, maila pertsonal, profesional eta zientifikoan, bai eta bakarka eta taldean lan egiteko ere, diziplina bakarreko edo anitzeko taldeetan, ardurak hartuz eta nork bere lana modu kritikoan baloratzuz.
- Psikologoaren praktika profesionala arautzen duen lege esparrua ezagutzea eta printzipio etikoak eta kode deontologikoa aplikatzeko gai izatea.
- Gai izatea era autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko, lanbidean modu egokian aritu eta psikologia jakintza sortzeko behar diren gaitasunak eguneratuta edukitzeko.

4.- HAUTAKETA ETA MATRIKULA

Sail bakoitzak tutoreen zerrenda bat aurkeztuko dio GRALeko batzordeko arduradunari aurreko ikasturtea amaitu baino lehen, ikasleak webgunearen bidez eskuratu ahal izan dezan, behar besteko aurrerapenarekin. Sailek bermatu beharko dute eskaintza hirueleduna eta ikasturte osoan mantenduko dela.

GRAL eta tutorea aukeratzea:

Baldintza akademikoa: 162 kreditu gainditu izana

A aukera: tutore bat zuzenean esleitzea. Ikasleak urrian aurkeztu beharko du idazkaritzan egin beharreko eskabidea, kasuan kasuko irakasleak sinatuta.

B aukera: web-orrian argitaratutako GRAL eskaintzaren tutore bat aukeratuko du ikasleak. Eskaera GAUR aplikazioaren bidez egingo da azaroan. Eskaera horren ondorioz egingo den behin-behineko esleipena jakinaraziko da abenduan.

Ondoren, tutorea aldatzeko eskatuz gero, ikasleak dagokion eskabidea beteko du, eta bertan tutoretza emango dion pertsona berriaren sinadura eta oniritzia jasoko dira.

Bigarren lauhilekoa hasi aurretik, behin betiko esleituko dira GRALetako tutoretza guztiak.

Adierazi behar da, beharrezkoa izanez gero, ikasleak ez badu GRALarik esleituta, eta GRALa titulazioari lotutako konpetentzia orokorrak aplikatzera bideratuta dagoenez, graduko irakasle eta ikertzaileen edozein pertsona esleitu ahal izango dela konpetentzia horiek tutorizatzeko eta ebaluatzeko, UPV/EHUren araudiak jasotzen duen bezala. Kasu horretan, soberako GRALak izango dira esleituko diren lehenak.

GRALeko irakasgaiaren matrikula

Baldintza akademikoa: irakasgaietako 12 kreditu baino gehiago eta curriculum praktiketako 12 kredituak baino ez izatea gainditu gabe.

GRALaren matrikula GAUR aplikazioaren bidez egin ahal izango da, ezarritako baldintzak betetzen direnean. Matrikula egin ondoren, ikasleak zehaztuko du zein deialditan eta zein hizkuntzatan defendatu nahi duen lana.

Prozesua

- 1) Ikastegiko sailetatik jasotako eskaintza argitaratzen da.
- 2) Ikasleak tutorea aukeratuko du A aukera edo B aukera baliatuz.
- 3) GRALeko batzordeko arduradunak tutorea grabatzen du, A aukera bada edo tutorea esleitu, B aukeran.
- 4) Tutorearen behin betiko esleipena egiten da.
- 5) Ikasleak tutore aldaketa eska diezaioke GRALeko batzordeko arduradunari.
- 6) GRALeko batzordeko arduradunak ebatziko du ikaslearen eskaera.
- 7) Ikaslea harremanetan jarriko da tutorearekin prozesua hasteko.

- 8) Ikasleak, lana egin ondoren eta derrigorrezko praktikak eta beste irakasgai batzuetan gehienez gainditu gabeko 12 kredituak gaindituta dituela, GRAL matrikulatuko du.
- 9) Ikasleak GAUR plataforman eskatzen du aurreikusitako deialdietako batean GRALaren defentsa egitea, defentsa zein hizkuntzatan egin nahi duen adieraziz.
- 10) Tutoreak oniritzia eman beharko dio GAURn GRALaren defentsa eskaerari.
- 11) Ikasleak GRAL bidaliko dio Batzordeko arduradunari psikologia@ehu.eus helbidearen bidez.
- 12) Ikasleak GRAL aurkeztu eta defendatzen du epaimahai batean, esleitutako egunean eta orduan, eta ebaluatu egiten dute.

5.- MODALITATEAK ETA GAIEN ESKAINTZA

Bi modalitate orokor proposatzen dira:

- 1) Practicumari lotutako lan bat, non oinarritu beharko baitira teorikoki eta metodologikoki, practicumean zehar egindako jardueren eta erabilitako teknikak, bai eta egindako jardueren balorazio kritikoa ere, landutako eremuan hobekuntzak proposatuz eta/edo esku hartzeko programa bat diseinatuz.
- 2) Irakasleek eskainitako gaikako aukeren zerrenda batean oinarrituta egindako lana, egindako practicumarekin loturarik ez duena. Lana hainbat planteamendutatik egin ahal izango da, hala nola ikerkuntza, garapen eta/edo berrikuntza proiektuetatik edo gai jakin bati buruzko berrikuspen eta eguneratze teoriko eta/edo metodologikoetatik (adibidez, kasuan kasuko egoeraren analisia, berrikuspen narratiboak, sistematikoak edo irismenekoak).

6.- TUTORETZA

Gradu amaierako lanaren zuzendaria edo tutorea izango da graduan eskolak irakasten dituen sail bateko irakasle bat edo gradua irakasten deneko ikastegiari atxikitako bat. Azpimarratu behar da gure irakasle eta ikertzaileen ardura dela GRALak tutorizatzea, graduko beste irakasgai bat baita. Pertsona batek baino gehiagok zuzen dezake GRAL. Unibertsitateari

lotutako doktoreek ere zuzendu ahal izango dituzte GRALak, bai eta doktorego aurreko kontratua duen pertsonalak ere, kontratuak horretarako aukera ematen badu.

Sail bakoitzak tutoreen zerrenda bat aurkeztuko dio GRALeko batzordeko arduradunari. Sailen proposamenak tutore bakoitzari lotutako gai bat edo batzuk jaso ditzake edo eskaintza orokor bat egin, dagokion jakintza arloaren izenarekin. Proposamen horretan zehaztuko da gai eta hizkuntza bakoitzeko eskainitako plaza kopurua.

Sailek bermatuko dute eskaintza hirueleduna izango dela eta ikasturte osoan iraungo duela, bajak edo gerora sortutako beste inguruabar batzuk gorabehera. Kasuotan, GRALeko batzordeko arduradunak kasuan kasuko sailarekin adostuko du tutorea berriz esleitzea.

Sailek bermatu beharko dute, gradu amaierako lana egin dezaketen ikasleen kopuruaren adinako GRALen eskaintza eta GRALko batzordeko arduradunak balioetsiko du, aurreko ikasturteko datuetan oinarrituta.

Pertsona bakarreko kudeaketa karguak dituzten eta irakaskuntzatik % 50eko edo hortik gorako murrizpena duen pertsonalak eskaini beharko du GRALeko plaza kopurua, irakaskuntza murrizketarekiko proportzioan (adibidez, murrizketa % 50ekoa edo handiagoa bada, gutxienez GRAL baten zuzendaritza eskainiko dute).

Irakasleen zerrenda aurreko ikasturtea amaitu aurretik jarri beharko da GRALeko batzordeko arduradunaren esku, fakultatearen webgunean unibertsitateak adierazitako egunetan argitaratu ahal izateko.

Prozesua

Behin kasleak GRAL esleituta duenean, tutoretza prozesuari ekingo zaio. Ikasleak harremanetan jarri beharko du esleitutako tutorearekin, GRALaren proiektua aurkezteko, lan egutegi bat adosteko eta kronograma bat ezartzeko.

Prozesu horren garapena bien artean adostuko da. Hala ere, gutxien dela, prozesu honek bildu beharko ditu hasierako saio bat, lanaren helburuak eta prozesua adostu eta hasierako zalantzak argitzeko; jarraipen saio bat, helburuak lortzeko erritmoa egiaztatzeko eta arazoak konpontzen laguntzeko; eta azken saio bat, lana berrikusteko eta lana defendatzeko eskaera adosteko.

Tutoreen eginkizunak

Gure fakultateko irakasle eta ikertzaileek gaitasuna dute psikologiarekin zerikusia duen edozein gai lantzen duten GRALak tutorizatzeko eta ebaluatzeko, zein bere jakintza arloarekin edo ikerketa eremu partikularrekin zuzenean erlazionatuta dauden GRALez harago. GRALaren esleipena arautegi honen 4. puntuaz azaldutako hautaketa irizpideei jarraituz egingo da.

Tutorearen eginkizunak honako hauek izango dira:

1. Ikasleari aholkuak ematea lanaren egitura definitzeko, helburu errealistak ezartzeko, iturri egokiak hautatzeko eta horiek behar bezala erreferentziatzeko.
2. Ikasleari laguntzea lan egutegia eta erritmoa finkatzen.
3. Ikaslea gainbegiratzea ezarritako helburuak lortzeko.
4. Ikasleari laguntzea GRALaren gaitasunak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskura ditzan.
5. Etengabe eskaintzea lanarekiko atzeraelikadura.
6. Errubriken bidez, ikaslearen GRALari lotutako gaitasunen eskurapena ebaluatzea.
7. Inplikazio etikoak identifikatzea, lanak ikerketa jardueraren bat balekar. Aholkuak ematea jarraibide etikoak betetzeko orientabidean.
8. Aholkularitza eskaintzea lana idazteko prozesuan eta epaimahaiaren aurreko aurkezpenaren prestaketan.
9. Defentsaren aurretik idatzizko txosten bat egitea eta horri oniritzia ematea GAUREn.

7.- LANA EGITEKO JARRAIBIDE OROKORRAK

GRAL egingo duten pertsona guztiak, lana garatu eta idazterakoan, kontutan hartuko dituzte ondoko alderdi hauek, laneko tutorearen laguntza eta aholkularitza izango dutelarik horretarako:

1. Irudi korporatibo eta EHU tipografia ofizialak erabili.

2. Hizkuntza inklusiboa erabili eta genero ikuspegia kontuan hartu, gizakiekin lotutako lanetan.
3. Egindako lanari buruzko gogoeta egin, printzipio eta balio demokratikoen eta Garapen Jasangarriaren Helburuen (GJH) argitan. Gogoeta honek 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifiko bat izango da lan idatziaren barruan.
4. Inplikazio etikoak dituzten GRALek UPV/EHUko Etika Batzordearen jarraibideak bete beharko dituzte.

8.- AURKEZPENA ETA DEFENTSA

GRAL amaitu ondoren, ikasleak, alde batetik, GAUR bidez, eskatu beharko du ikastegiak aurreikusitako deialdiren batean defendatzeko eta, beste alde batetik, GRALeko batzordeko arduradunari bidali beharko dio, posta elektronikoaren bidez (psikologia@ehu.eus), GRALaren kopia bat eta defentsarako aurkezpenaren kopia bat (biak PDF fitxategi gisa). Hori guztia telematikoki egingo da, ez bestela, paperezko alerik emango ez delarik.

GRAL ahoz defendatu beharko da horretarako izendatutako IRIko hiru kidek osatutako epaimahai baten aurrean. Ikaslearen tutorea ez da egongo epaimahaian.

GRALak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez aurkeztu ahal izango dira.

Deialdiak eta defentsarako epeak

GRALaren matrikulak, ikasturte bakoitzeko, bi deialdi ofizialetarako eskubidea ematen du, lana egin, aurkeztu eta defendatzeko. Ikasleak lana aurkezten ez badu edo ebaluatzen ez bazaio ikasturteko bi deialdi horietako batean, berriro egin beharko du GRALaren matrikula hurrengo ikasturtean.

GRALak aurkezteko eta defendatzeko hiru aldi gaituko dira. Esleituko diren datak otsail, ekain eta irailean egongo dira.

Aurkezpen formatua eta defentsa

GRAL power point formatuan aurkeztuko da, legokiokeen epaimahaiak ebalua dezan.

Ikasleak power point erako aurkezpen baten bidez aurkeztuko du lana, non azalduko baititu GRALaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak. Power point aurkezpena 3 eta 7 diapositiba artean izango da luze. Ikasleak 5 bat minutu inguru izango ditu aurkezpena egiteko. Aurkezpena amaitutakoan, epaimahaiak egoki leritzokeen galderak, argibideak, iruzkinak eta iradokizunak egingo ditu egindako lanari buruz.

9.- BALIOESPENA, KALIFIKAZIOA ETA BERRIKUSKETA

GRALeko tutoreek zuzendutako lanen ebaluazioa egingo dute horretarako diseinatutako ebaluazio formularioaren bidez, eta GAUR plataformara igoko dute. Bi atal ditu tutoreen ebaluaziorako formularioak. Alde batetik, A atalean, gaitasunak eta prozesua ebaluatzen dira. Gainera, ziurtatu behar da lanak eskatutako formatu baldintzak betetzen dituela. Bestalde, B atalean, tutoreak lana kalifikatzen du. Inprimakiaren amaieran lauki bat dago, tutoreak ikasleentzat eta/edo ebaluazio epaimahaietarako garrantzitsuak izan daitezkeen iruzkinak egin ditzan.

Tutoreek esleitutako notak % 30eko balioa izango du, lanaren ebaluazioaren azken kalifikazioan.

Ebaluazio epaimahaia eta eginkizunak

Sail bakoitzak gutxienez epaimahai bana izendatuko du GRAL aurkez daitekeeneko hizkuntza bakoitzeko. Epaimahai bakoitza hiru irakaslek osatuko dute, horietako bakoitzean epaimahaiburu bat, idazkari bat eta epaimahai kide bat izendatuko direlarik. Sailak behar adina epaimahai izendatu beharko ditu bertan eskainitako GRALak ebaluatzeko.

Honako hauek izango ditu eginkizun:

1. Aurkeztutako GRALak zein hauen aurkezpena eta defentsa aztertzea.
2. Aurkeztutakotik abiatuta eta GRALari lotuta, balioestea ikaslearen gaitasunak.
3. Eskaini atzeraelikadura, gaitasunak hobetuko badira.
4. Lanaren balorazioa ematea, errubriken eta azken puntuazioaren bidez.
5. Kalifikazioak GAUR plataformara eroatea.

6. Txosten bat idaztea gomendio egokiekin, lanari emandako kalifikazioa suspentsoa balitz.

Ebaluazioa eta kalifikazioa

Ikasle bakoitzaren azalpena egin eta tutorearen ebaluazioa ezagutu ondoren, epaimahaiak kalifikazioa esleituko du, GRALaren irakaskuntza gidan argitaratutako ebaluazio irizpideekin bat etorrita, eta kalifikazioa GAUR plataformara helaraziko da.

Honetara kalkulatu da GRALren azken nota:

- Aurkeztutako lana: notaren % 60.
 - % 30 tutoreari dagokio.
 - % 30 epaimahaiari dagokio.
- Aurkezpena eta defentsa: notaren % 40.

Titulazioko gainerako irakasgaiak bezala, GRAL honela kalifikatuko da: suspentso (0-4,9), gaindituta (5-6,9), oso ongi (7-8,9) eta bikain (9-10).

Epaimahaiak hautagaitzak proposatu ahal izango dizkiote GRALeko batzordeari Ohorezko Matrikularen kalifikazioa lortzeko. Kalifikazio hori ikastegiak eman ahal izango die, defentsa aldi bakoitza amaitutakoan, GRALaren defentsetan kalifikazio onenak lortu dituzten ikasleen % 5i, gehien dela, beti ere 9,0ko kalifikazioa edo handiagoa badute.

Lortutako kalifikazioa suspentsoa balitz, epaimahaiak txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana hobetzeko eta ondoren ebaluatzeko gomendioak bertan direla. Txosten horren kopia bat laneko tutoreari bidaliko zaio.

Ikasleak eskubidea izango du GRALeko azken kalifikazioak berrikusteko edo erreklamatzeko. Lehenik eta behin, epaimahaiak berak berrikusiko du ebaluazioa. Beharrezkoa izanez gero, erreklamazioa GRALeko batzordeak izapidetuko du, eta ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Unibertsitatearen Errekurtsioen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari.

Edozelan ere, GRALeko kalifikazioa urriaren 31 baino lehen ageri behar da ikaslearen espedientean jasota.

10.- GRAL ONENAREN SARIA

10eko kalifikazioa lortu duen GRAL oro hautagai izango da bere promozio GRAL onenaren sarirako. Sari hori erabakitzeke, epaimahai bat eratuko da ikasturte bakoitzean, unean uneko ikasturtean, jakintza arlo bakoitzean epaimahaiburu izandako irakasle batek osatuta, GRAL aurkez daitekeeneko hizkuntza ofizialetako edozein irakurtzeko eta ulertzeko gai izango delarik. Sailek proposatuko dituzte GRAL onenaren sarirako epaimahaia osatuko dituen pertsonak.

Epaimahai horrek izangaien lanak eta aurkezpenak izango ditu, bai eta legozkiekeen tutoreek eta epaimahaiek egindako ebaluazioak ere.

GRAL onenaren sarirako epaimahaia akordioa akta batean jasoko da, epaimahaikide guztiek sinatu beharko dutena, bai eta GRALeko batzordeko arduradunari helaraziko ere. Saria nori emango zaion behin ebatzita, kasuan kasuko promozioko diplomak emateko ekitaldian jakinaraziko da nor den sariduna.

10en kalifikazioa lortu eta GRAL onenaren sarirako lehian parte hartu duten GRAL guztiak UPV/EHUren gordailu instituzional publikoan (ADDI) argitaratuko da.